

ZER

142n. Zenbakia Bagilla (Ekainilla)

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

1990



EGOKI FORTI ALDUNDIA
KULTURA, SAIA
LAGUNTZARTEA

Saint-Jean-de-Luz




DONIBANE LOITZUN:

- Ipar-Euzkadi'ko iri polita.
- Kaita, baserria, kalea, uda-lekua.
- Ego-euskaldun askoren babes-tokia.
- Uri maitagarria.

EUSKALDUNAK

””
 Y ' — {
 r~:-a t S: . -4.7



Gudari zarra ardi-txakurragaz bere etxe-aurreko zelaietan

GUDARI ZAR BAT

Jon Solaguren Artetxe Zornotza'ko Boroa'n jaio zan eta antxe bizi da Mari Garmendia'gaz ezkondua.

Gure Jon Solaguren pozik bizi da bere zartzaroan, eguneroko zeregintxuetan murgilduta.

Euba'ko Ercoles auzoan, alabea ta suiña daukoz etxean. Iru edo lau bei zaintzen dauz bere landa ta soloetan.

Ardi-txakur baten jabe da Jon eta txakurragaz erabilten dauan trebetasuna ikusi nebanean, ZER'eko irakurleentzat orretzaz zerbait idaztea erabagi neban, bide batez bere bizitzako jakingarri labur batzuk agertzen dodazala.

Txakurra gaztea da, margoz bellegia edo gorri-urrezkoa, ez aundia eta ez txikia, ardi-txakurrik geienak izaten diran neurrikoa.

* * *

Bizkor-bizkorra da txakurra eta bere jabe dan Jon Solaun'en esanekoa Jabeak beiak urrin daukazanean, eta kortara ekarteko ordua eltzen danean, Zori txakurrari keiñu edo dei egiten dautso eta or joako txakurra tximista bat lez, ugazabak adierazoten dautson lekura. Xo! Xo! izaten da agintzeko erabilten dauan itza. Andik eun neurkin ingurura beiak dagozen lekura eltzen danean, beiak bedarra jaten dagozen artean, txakurra zur egoten da ugazabaren aginduak artzeko, zur belarriak eta zur begiak.

Ugazabak eskuaz adierazten dautso beiak ekarteko eta txakurrak arduraz beteten dau zeregin ikusgarri au.

Jon gudari izan zanean, ez eban su-izkillurik eskuetan artu, bere eginbearra kamioak erabiltea zan, baiña beretzat be arriskugarriak ziran goitik etorkozan lerkaiak.

Franco'tarrak Euzkadira sartu ziranean,...

—Non egiteri zenduan bear, adiskide Jon?

—Valladolid eta Asturias'era bialdu ninduen.

—Eta entzun zenduan orduan Aita Patxi'ren barririk?

—Zurrumurruren bat bai.

—Ba, entzun egizu. Euzkadi'ren alde gudan ebillala, berak kapellau-lana egiten eban. Bermeo-aldean atxillotu eta andik "La Rebelión de la Sal" gudarostera bialdu eben. Emen bere bizitzea, be eskiñi eban eriotzarako epaia eukan guraso baten ordez.

* * *

Gure Jon'ek 22 urtetan egin eban lan izkillu-lantegi baten eta orain -zar-sariduna da.

ERTZAIÑAK

ERRI-LAGUNTZA

Edozein errik bear dauan laguntza da Euzkadi'n Ertzaiñak emoten dabena.

Naiago izango genduke ertzaiñik bear ez leuken erri bat izatea, baiña zorionez naiz txarrez, ertzaiñak emoten dabena laguntza bear-bearrekoa da errian.

Zeregin asko eta askotarikoak daukez ertzaiñak, baiña batzuk gogoratzeotan, erritarren aurka izan daitezkezan kalte guztiak alboratzea ta gure bideetako ibiltaritza bideratzea dira bi.

Sarritan, geu bear dan lez ez gabiltzalako, mingarri izango jaku euren jokabidea, baiña orduan be ez dogu ukatu bear erri-aurreko bizitza egokia izan daiten bearezkoak dirala. Bear ba'da, bein baiño geiagotan, errazoi barik zigortu gaituela uste izango dogu eta gora deiak egitea aspergarri biurtzen jaku, baiña...

ko giro onetan, batez be izukeria bizi-bizi daukagun aldi onetan, arriskua aundagoa da.

Tamalgarria benetan, erriaren alde agertzen diran batzuk erritik sortuak eta erriaren laguntzarako diran ertzaiñak zemaitzen dabezela ikustea.

Euskaldun guztien zentzunari egiten dautsegu dei, batez be izkilluak eskuetan daukazenai, ez daitezela asi errikideak ilten. Egia esan, iñor be ez da il bear. Orretan ez dago zalantzarik. Baiña ilketaren zemai ori errikide ta anai doguzan erri-laguntzailleen gaiñera datoorean mingarriago biurtzen jaku.

Erri-zaletasuna ta zentzuna alkartu daitezela ba, erriko bakea loratu daiten.

ARDURA GUZTIAK

Ertzaiñak gure erriko bazter guztietara zabaltzea aspaldion pozez ikusten dogun ekiñaldia da.

Bear ba da, askatasun osoa lortu ez dauan erri onen barruan, gaurkoz, izan leitekez erbestetarren zainpean egon bear dabena erakunderen batzuk, baiña berez, gure errian diran zaintze-ardura guztiak eta alde guztietakoak ertzaiñen ardurapean egon bear dabe. Ori lenago egin ba'litz, bear ba'da, ainbat ilketa alboratuko ziran. Eta gaiñera erritar askoren barruan dagoan ikusi-eziña be alboratuta egongo litzake.

Euskaldunak zaindu dagiela ba, eurena dabena Euskalerra.

ERRITIK SORTUA

Urteetan izan doguz olako edo antzeko laguntzak eskintzen erbestetik etorritako guardiak, eta oraindiño be emen ikusten doguz, baiña ertzaiñak geure erritik sortuak eta legez sortuak doguz eta aurrekoen jokabideak alde batera itzi eta gure ertzaiñai txera ona, maitasuna ta laguntza eskiñi bear dautseguz. Zuzen jokatu dagien alegindu be bai baiña estutasun larregigaz gauzak artu barik.

ARRISKUTSUA

Erzaiñen zeregiña berez da arriskutsua, baiña gaur-

GARDE'TAR MARTZELINO

Naparroa'ko abade zintzo, euskaldun zindo, eta abertzale jatorraren omenez

Joan yaku.

Aren joate ori, ederki sumatu-bearrak gara Naparroa'ko eskal-ekintzetan. Orril onen 6'ean, domekan, il yaku, eta atzo, Orrillak 7, emon dautsagu lur Karkaztelu'ko illobitegi txukunean.

An jaio ere jaio bait zan, orain dala irurogei ta lau

urte. Arriturik ikusi dot, illobitegi artako gurutzeetan ia-ia euskal-abizena besterik ez dala ageri. Karkaztelu'n —gaztelera zko Karkastillo'n—, euskera aspaldi galdua bait dugu. Egon ere, Naparroa'ko egoaldean, Aragoi'ko muga-mugan dago ba On Martzelino zanaren jaioterria.

Orregaitik, erdeldun jaio zan Martzelino bera. Baiñan biotzez eta benetan maitatzen bait eban bere aberritzat beti euki dau Euzkadi guzia, eta, bereiziki, Euzkadi orren zati nagusia dan Naparroa, gogoz ekin eutsan, erdiaroan "lingua navarrorum" esaten eutsoen euskara ikasteari.

Eta baita ikasi ere. Ederki ikasi euskun "naparren izkuntza". Bai beintzat euskera ulertu eta euskeraz itzegiteko lain. Eta baita euskeraz idatzi eta euskeraz olerkigintzan jarduteko lain ere.

Lan aundia egin dau Naparroa'n On Martzelino'k euskeraren alde. Euskeraganako zaletasuna naparren biotzetan sortarazten, lendabizi, bere illobengandik asita. Gauza alaigarria izan yaku bere illoba gazte oiek, osaba maitearen illeteetan euskeraz zeifien ederto egiten eben ikustea.

* * *

Batere gorrotorik gabe, baiñan zauri asko eroan dauz On Martzelino'k beste mundura.

Elizak berak iriki dautsoz zauri oietako batzuk. Ainbeste abade zintzo abertzalerekin bezala ez da Eliza On Martzelino'rekin oso era txukunean jardun, naiz On Martzelino'k Eliza ain biotz guztiz maitatu. Bere euskera, erri euskalduna irakasletzat artuz borobiltzeko eta apaintzeko, erri euskaldun batera abade joatea izan dau On Martzelino'k gurari bizienetako bat. Elizak ordea erri erdeldunetan euki dau beti gure abade zintzo ori.

Oso-osoa apaiza zalarik, bere Euzkadi'n sinismena galtzen ikusteak, eta berak ainbeste maitatutako Alderdi Sabindarrean bertan, Sabiñ'ek sekulan onartuko ez ebazan gizon-emakumeak, Franko il bezain laister nola sartzen asi ziran ikusteak ere sakonki zauritu eutsoen biotza.

Ikastolen alde kemen guztiz egin eban lan, batez ere Iruña'ko lenen ikastolari sortzea emoterakoan. Negar egin eban, ikastola ori herribatasundar sinisgabeen menpera jausten zala ikusi ebanean.

Urte askoz, Naparroa'an "Biana'ko Printzipia" deritzan erakundeak argitaratzen daun aldizkariaren zuzendari izan genduan. A!, nolako miña suma eban berak, Naparroa'ko jauntxoek euskal aldizkari orren argitaratzea eragozi eutsoenean.

"El batua"ren sorketa arras izan yakon mingarri euskera ain benetan maite eban Euzkadi'ko seme bikain oni. Ikusten eban ba berak, iturri zikiñetik jaiotako izkera mordollo ori, euskera iltzera zetorrela.

Era berean samindu eutsan biotza Alderdiaren zatiketak. Sabiñ'ek irasitako Eusko Alderdi Jeltzalea, Euzkadi'ren askatasunerako bear-bearrezko izkillua dala etsirik bait zegoan. Zatiketa ostean, Alderdi zaarraren babesle jarraitu dausku; berak maite ebana, zatitzera zijoan Alderdi diko burukideak ez baiña soilki Alderdi bera bait zan.

Karkaztelu'n izan da, illetetan, Alderdiaren Lendakari Jauna. Zor eutsan Alderdiak orrenbeste On Martzelino'ri!

* * *

Gotzaiek ez dira On Martzelino'ren adiskideegiak izan. Gotzaiek ez dabe ordea On Martzelino baiña serbitzari leialagorik izan.

Adiskideok berriz, batez ere "Biana'ko Printzipia"an eta "Diario de Navarra"-ren asteroko euskal-orrian berekin lan egin dogunok, zer esan? Ez dogula iñoiz gizon miregarri onen irripar goxorik aztuko. Naiz beti biotza zauriz beteta eroan, beti alai, beti gozo, beti baikor agertzen bait yakun On Martzelino.

Zillegi bekigu lanean il dala esatea ere.

Berak zuzentzen eban "Diario de Navarra"ren asteroko euskal-orria. Domeka'n il zan On Martzelino. Ba, bezperako zapatuan argitara irten bear eban orria, berak ber-berak gertutu euskun.

A! nolako gizona Karkaztelu'ko Martzelino Garde Abade euskalduna! Eta berak merezi eban lez, a! nolako jende-sailla —eta lau eusko-lurraldeetako abade-mordo ederra—, bildu yakon Karkaztelu'ko jaurettxera, azken-agurrik maitetsuena il yakun adiskide aztu-eziñari emon naiez.

LAITEGI'tar BIXENTE

BENJAMIN MANTEROLA, OLERKARI (1914-1936)

Zeanuriko Ipiñaburu'n jaio zan 1914-6-5'an karmeldar Ordenan Joseba Imanol eritxon gazte au. Len-estudioak bere errian egiñik, gero eleiz-deiari erantzun naita, Larreako Ikastetxean osotu zituan ortarako asi-masiak, karmelda abitua be bertan artu ta 1931'an iru eskintzaz Jainkoaz loturik.

Iruña'n asi eban 1933'an lenengo Filosofi urtea, nota oneik aterarik: Filosofian 9, Natur Edestian 10, Kosmografian 10, frantsez izkuntzan 7, ta abar. Urren-go urte biak, Filosofi urteak, Gasteiz'en egin zituan, lenengo urtean, 1934'an, Filosofian 9, matematikan 8, Soziolojian 9, eta 1935'an, Filosofian 10, Fisikan 9 eta Kimikan 9 aterarik. Orrela dator orduko ikas-liburuetan.

Errepublikara garaia zan. Urduritasuna nasai bazterretan, baita zer letorkenaren kezka be nagusien artean. Lo ezin egon. Eta orduan Euskalerrian nagusi zan Aita Ezekiel Bilbao zornotzárrak gogo ebanez, ikasle gazteak, al ebenak eta nai ebenak, barruko ikasketaz gaiñera, batxiler be egin egiela nai eban. Benjamin gazteak, beste bigaz batera, batxiler kurtsoko iru urte ta errebalida egin ebazan.

Orduan ikasle izan arren ez bait egoan soldadutza luzapenik, Gasteiz'en bertan, beste batzukaz batera, bete eban egiteko ori. Begoña'ra etorri oi ziran ikastera. Baita ori zalarik, orduko ospe aundiko zan Lauaxeta'ri ikertalde samurra egin eta urren-go egunean Gasteiz'erratu be. Beingoan gaixotu ta bertako Militar Gaixotegian il zan 1936.10.31 apirilaren 31'an.

OLERKARI

Euskal letrentzat batez be itxaropen aundiko gaztea zan zeanuristar au. Urte areitan, eta aurretik, iñoizkorik bizien ebillen gure artean euskal griña, ikasi ta idatzi alkarren leian egiten genduan. Gasteiz'en karmeldar ikasleak, beste ordenetakoak lez, orduko oiturari elduz, barruko aldizkari bat, idazleak sortzeko egoki-egokia, "Renacer" eritxona geunkan, erderaz ta euskerazkoa bera.

Manterola'ri eder jakon olerkia, garai artan iñoiz ez bestean biztuz joian euskal poesi bipilla. Argia ta asko irakurria zan, eta atsegin jakon "Renacer"-en idaztea eta ementxe datoz 14 bat oler-lan; prosaz be zerbait idatzi euskunagaitik, lanok itz-neurtuz daukaguz. Oneik dira: "Lizardi olerkaria" (amalaukoa), "Ene begiko" (amalaukoa), "Aberri-baratzeko yaupaleme", "Olerti-iturria", "Gotzon aize beltza", "Goiz jarduna", "Uso aterpe", "Illuntze gorria", "Biotzaren zauri-muiñoa" (illeta eresia), "Seaskan lo", "Arrats bera", "Maite-deia", "mosu gartsua", "Yosu neuria", eta bost-sei prosazko lan.

Ona "Maite-deia" deritxon amalaukoa, 1936'an egiña.

Zer da enegan ain ariz daitzeko?
Ainbat dot eneganxe Maitalea.
Ate-urre ortan intziz estalia
negute beltz gabak igarotzeko?

Egunik egun leio zabaltzeko
dantzut Maitale goxoñoarena.
Adiña izan be biotz-lozorroa
otoikor Maitale orren deirako!

Egunak iges. Beiñolako goizan
so-dagit maite-gelako leiora,
ora baña? zer dakust bat-batean!:

Maitalea... —"Sar adi barnera",
lazkatu nadin aope-mintzoan,
betor noizbait nigan maite-aroa.

Ameslari da gizona, gazte-kimuz atan be. Orobat euskal literatuta nortua be. Askok genbiltzan lanean, euskal lanari lotuak gerra aurreko urteetan, ameslari bear bada; gure asmo ta lanen frutua beiñik-bein laster jausi zan ezer-ezera. Oso langille ta ikastun etozan gure gazteak, eta au be egia dozu, orduan salbau ziranak jakuz euskal idazleen artean, eta agintarien artean, goi-maillan dabilzanak. Ezta arrokeria.

Guk karmeldarrok gazte bi galdu genduzan, eta beste asko sakabanatuak eta ostikopetuak izan ziran, bide

ELERTIA

ertzetan loi ta murriz geratu oi diran lore bikain usain-
tsuak legez. Langille amesti asko betiko eratxiak! Gazte
bi oneitatik bata Aitatu dogun Manterola ta bestea
Jakoba Gerrikaetxebarria, gerra denporan Kordoba
ondoan jausi zana, euskal idazle ta olerkari ona Gastei-
z'en ikasle oindiño.

Irakur zeuk Manterola'ren beste au, "Gotzon-aize
beltz" deritxona ta zeuk esan zelako poeta etorkigun.

Gau-sabel aizaroz elurra ixilkiro,
ortzi goibeldutik dator. Uzku oro.
Su ta izar indargea urrun arkaitz alde;
argi motelera aitz, belardi, elurpe...

Otz gauaren jabe. Noizbait aize zurmur;
gerora, orra elur-zati arkaitzez linbur,
oiuska minkorrak eio aldi berean
aizeak zugatz-adar ta arkaitz artean.

Baña... ixo! Goian odei tarte
argi islatsu, lenen ezer gabe;
urrenago, ego; atzenez, arpegi:
gotzon-aize beltza otzez urbil izaki.

Aize beltz orri zor, eundaka izar biztu
arkaitzeko elurran. Sarrera sutu...

Aurki ereserki-ots eresitsua;
itz aro dakarkit aizeak gozoa.

Ona datorkidaz aize-egoz legunki;
oro dantzut, bai ele bai ereserki:
"Aintza goitan Jaunari eten gabea;
naia ontzat etsiko lurtarroi, gentzea".

Gerra aurretxoan, 1935'an euntzen ziran onako lanak,
Lizardi, Lauaxeta, Orixe, Loramendi, Tapia-Perurena ta
besteak euren loraldi jori ederrean aurrelari zirala.

Barrero be, irakur egizu Kristoren jaiotz inguruko
olerki au. Ikusi zelan zirkin dagian Olerkari gaztearen
irudimen urduriak. Ba-da emen poesi-garra.

Gaurko gazteak ez dakie nolako aizeak putz-egiten
eban orduan. Garai aretako alkarri jarraitu leiak eta
alkargandik ikasi nai biziak, atzerri kutsuz loitu barik,
etxekoz eta euskal senez goi-erpiñera jasoa izan zan
eusko poesia. Ederto bai letorkela orduko olerkiz orni-
dutako antologi aukeratu bat. A oiñarri dogula jokatz
geunke egi-egiazko euskal poesiaren jauregi lerdena.
Atzen urteotakoa, nire ustez, lar kanpora jo dogulako,
euskal arima bage geratu jaku.

AITA ONAINDIA

EUSKALDUNEN EGUN AUNDIAK

Erri txikietako euskaldunen oiturak asko aldatu dira. Errien euren izaerea aldatu dan neurrian galdu dirala esan geinke gure erri txikietako oitura jatorrak.

Len lan batzuk egiteko auzoak batu egiten ziran, orain ostera olako alkartzeak etxeetan gitxitan ikusten dira.

Len jatorduetan auzoak batu eta etxeetan egiten zan jai, orain olakorik egin nai danean jatetxera joaten dira guztiak. Eta baleiteke au aurrerapen bat izatea, gure etxeko andra zintzoen lana urritzeko, baiña, auzo-giroa ta jatortasuna galdu egin da.

Len artzen ziran janariak etxeak emoten ebananak, orain zabalkundeak sartu dauskuzan eta sarritan atzeritik ekarten diran janariak izaten dira.

Gauza egokia dala uste dogu gure erriak izan dauzan oiturak gogoratu ta batzea. Orregaitik artu dogu gaurko berbaldirako gai au.

* * *

BEAR-IZANAK ERAGINDA

Guztiok dakigu gure euskaldunen artean etxebizitzak izan dauala indar aundia eta lotsorrak izan garala auzokoen laguntza eskatzeko. Emen aitatu-ko doguzan egun batzutan auzokoen laguntza biltzen ba'da, bear-izanak orretara eroan gaitualako bazkaria, illeten ospakizuna; ezkontzetakoa da abar... izan da.

Baiña bear-izanak be era bitakoak dagoz. Batzutan estutasunak sortzen dauz, esaterako etxeak bakarrik egin ezin daben lan bat egin bear danean, egin dagigun etxean txarria il bear danean eta orretarako olako lanak egiten dakiana eta eusteko lagunak bear izaten dira eta auzokoai dei egiten jake.

Beste arlo batzutan esaten dana da emen be egia: lanak alkartu egiten dauzala gizonak, euskaldunak be bai.

Eta bein alkartu eta auzokoen mesedea artu ezkeru, zelan ez esker ona agertu, alkarragaz jatordua egiñaz? Orra or etxeetako ospakizun askoren iturria.

* * *

LANAGAZKO ZER-IKUSIA

Argi dago ba, ospakizun edo jai onek, ez guztiak, bai geienak, lanagaz lotuta dagozela, batzuk geiago, beste batzuk gitxiago.

Eta ez da arritzeko gauzea be. Gaur ospetsu diran kirolak geienak ortik sortuak dira: Abere-zaintzatik zezen jokoa, arraintzatik estropadak, baso-lanetik aizkolariak, eta abar.

Etxeko jai oneik be antzeko jatorria dauke: garia jo bear zalako edo matsa batu bear zalako batzen ziran auzoak eta zalantza barik obeto izango zan olako jaiak ugariagoak izan ba'litzaz, euskaldunen bizitzea, baserriaren erakundeak berak eskatzen ebalako, lar bakarkakoa izan dalako. Jokabide orrek ondoren aundiak izan dauz Euskalerrian eta gaur be agiri-agirian dagoz.

Baiña ba-dira sendiagaz zer-ikusia dauken jaiak be, eta gienetan sendi jai oneik kristiñauen fedea-gaz lotuta egoten dira, esaterako erriko jaietako

* * *

GARI-JOTEA

Egunik aundienetariko bat gari jotea izaten zan. Aldi baten gure baserrietara garia ereiteko gogo

EUSKAL-ASTEA

bizia sartu zan, batez be guda-ostean. Gure lurrak garia emoteko onak dira, baiña euri larregi egiten daualako galtzua aundiegi egiten da eta urrengo aize indartsuak etxundu egiten dautz gariak, orregaitik bear ba'da, urte batzuk geroago gari-zaletasun au osoan galdu zan gure baserritarren artean. Ba-leiteke or beste errazoiren bat izatea be, esaterako gari-lekuak zeintzuk diran goitik agertu izatea edo eginbidea arlo onetarako.

Gari jotea antxiñako lana izan da gure errietan baiña egin dagigun lan onen kondaira apur bat.

Garia lenengotan igitaiaz eta geroago kodaiñeagaz, ebagi egiten zan, geroago etorri ziran gari-ebagiteko tramankuluak, baiña laster geratu ziran baztertuta, garia ereitea amaitu zalako.

Garia ebagi ondoren txolak egiten ziran. Lan au geienez andrena izaten zan. Gero txola orreik metatu egiten ziran, lurraren ezotasunak kalterik egin ez dagitsen. Meta txikiak zortzi amar txolakoak ziran, oiñak beian eta zabal eta buruak goian eta estu ebezala. Geroago meta txikiak askatu eta meta aundiak egiten ziran, txikiak egiteko bide bera artuta baiña askoz txola geiago batzen zirala. Meta aundirik ez zan bear izaten gari jotea laster egiteko ustea izan ezkeru.

Gari joteko eguna ondo aukeratu bear zan, euri-eguna edo egun illuna izan ezkeru, lan ori ezin egin zeitekealako. Egun egokian auzoai dei egiten jaken, txola guztiak soloan banaka eta zabal ipiñi ondo legortu daitezkan, gero etxeko ate-aurrean edo portalean arriak ipiñi bear ziran, garijotzailleak zenbat ziran, ainbeste: Bean arri txikia eta onen gaiñean pendiz arri zabala.

Eguerdia baiño lenago, txolak ondo legortuta, txiskortuta, egozanean, eupada ta zantzoak entzuten ziran eta andrak txolak soka-gaiñean batu eta kargak gertatzen ebezan eta gizonak kargak etxeratu eta ate-aurreko arrien ondoan jarri. Orduan asten zan gari jotzailleen lana, esku biakaz txoleari oratu eta goitik eta betik jo ta jo arik eta garau guztiak aurrean txolatik askatuta ikusi arte.

Baiña eskuzko gari jote ori laster galdu zan, jarijoterako tramankuluak agertu ziran. Lenengo tramankulu txikiak, burdi-gaiñean ekarten ziranak. Gizon bik sartzen ebezan tramankulu orreta-

ra txolak, bakoitxak bat, eta tramankuluak buruak kentzen eutsezkan txolai eta galtzua alboan moltzoratzen zan, gariak bar iz tramankuluaren beste alde-tik urtetan eban pillo batera.

Gari jotan asi aurretik tramankulua ibiltan jarri bear zan, motorraren indarrak. An izaten zan zaratea! An alkartzen ziran gizonen zantzoak eta tramankuluaren otsak. Eta giro orretan ardaugari.

Garia jo ondoren garbitu egin bear izaten zan, gal-autsa kendu. Garia eskuz jotan zanean au artzeagaz eta aizearen indarragaz egiten zan, baiña laster etorri zan garia garbitzeko makiñea, eskuz eraginda, aizekin baten bidez garia garbitzen ebana.

Geroago tramankulu aundiagoak etorri ziran. Tarrant edo kamioi aundietan ekarri bear izaten ziran eta garirik geien egoan etxeko lana be ordu pare baten egiten eban: Jo, garbitu eta sakura sartu. Orrelan lan onek len eukan bizitasuna galdu egin eban eta urte gitxi barru gari-ereitea itzi egin zan.

Baiña garia joteko erea bata naiz bestea zala, auzoak alkarren laguntza bear izaten eban eta gero laguntzagaitik esker ona agertzeko, bazkaria egiten zan. Lenengo aldietan beintzat, etxeko janariakaz atondua: Azak eta indabak, zeziña, tomatea, piperrak, oillazkoa eta abar. Etxeko txakoliña, egoanean, eta akeita ta edariak ugari.

Guztientzat izaten zan oso berezia gari jotearan eguna, baiña geien umeentzat. Gutzat benetan jai aundia zan eta pozgarria.

* * *

MATZ-BATZEA

Matza gure baserrietan ugari izan dogu eta geienetan txakolin gozoa egin be bai. Baserri batzutan bi milla edo iru milla neurkin txakolin egiten ziran. Aspaldion lan au urrituta egon da, baiña azken-urteotan indar barria artu dauala esan lei.

Matza solo-munetan sartzen zan geienetan, Errioxa-aldeko matza baiño askoz aundiagoa eta taketen gaiñean burdin-ariagaz lotuta zaintzen zana.

Uda-barria baiño lenago, uren beera esaten jakon

sasoian, iñausketea egiten zan eta gero orriak urten eta laster botiken bidez zaindu bear izaten zan: Gure maazti-zaiñak lepoan ontziak eta eskuan eragillea ebela matz-ondo guztiak sulfatoaren margo orlegizkea ebela izten ebezan. Ez egoan beste biderik, matz-garau gozoak lortu nahi ba'ziran.

Beste era bateko matza izaten zan etxe-aurrean eta bide batez gerizpea lortzeko izaten zan matz-parrea. Ondo batek bakarrik arlo ederra beteten eban eta frutua ugari emon. Au be bardin zaindu bear izaten zan.

Era bitako matza izan da gure baserrietakoa. Matz baltza ta matz zuria, geroago agertu ziran beste era batzuk, jateko matzak, ez txakoliña egitekoa: asta-matza, moskaltela ta abar...

Baiña goazen matz-batzearen egun pozgarrira

Matza batzeko be langille geiago bear ziran: Batu, etxera ekarri, zapaldu, dollaran estutu, zukua batu ta upeletara sartu.

Auzoko jentea ekarten zan ba eta jentea batu ezkerro, naizta lana egin bear, poza ta alaitasuna ugari izaten zan.

Matza batzeko umeak eta nagusiak, andrak eta gizonak, guztiak ziran gai. Eta batuz jan be egiten zan. Umeak batez be larregi jaten eben eta sabela bigundu be egiten eutsen.

Gizonak eta gazteak ekarten eben matza etxera eta zaranean edo olako lekuren baten zapaldu egiten zan, lenengo zukua edo mostoa, geiena aterateko. Gero matz zapaldua, zukudun azalak, dollarara botaten ziran eta an esku-age edo burdin luze batzuren laguntzaz estutu, zukua dana atera arte. Geratzen ziran azal zuku-bakoak ontzi baten izten ziran, gero uragaz nastau eta egun batzuk orrelan euki indoren "pitipiña" lortzeko. Edari eskasa zan au, ura baiño gozagoa baiña txakoliña baiño askoz txarragoa.

Txakoliña izateko zan zukua upeletara edo barriketara sartzen zan eta ille batzutan loi guztiak gaiñera urteten eben eta garbituta geratzen zan. Gero egun batzuk igaro ondoren txakolin gozoa gertu egoan.

Eta lan ori amaitu ondoren, etxeko andreak gertatu eban bazkari ederra egiten zan, gari jotearen egunean egin zanaren antzekoa.

* * *

ARTO-ZURITZEA

Artoa gure soloetan batu izan dan ondorenik onena ta ugaria izan da eta gure kortetako abereentzat janari oso egokia ta indartsua.

Artoa izan da gure baserrietan ainbeste urtetan janari egokia personentzat be. Gosaria taloa ta esnea izaten zan, eta gabeko aparta antzekoa. Eguerdian indabak lapikoan egosita eta euren saldeagaz eta ogiagaz egindako sopa gozoa. Lapikorako, almezian ondo jota gero, urdaia sartzen zan.

Jatordu guztietan taloa izaten zan janari, baiña eguerdietan, egun berezietan ogia jaten zan.

Baserriko lan arrunta zan soloetan artoa ebagi, indabea kendu eta artaburuak moltzo baten izatea, laztoak osterate beste moltzo baten eguneroko janaria izan zeitean beientzat.

Artaburuak laztotik kendu ondoren ondo zikatzen ziranean, arto-zuritzearen lana egiten zan. Lan au egiteko ez zan auzoko asko batzen, urren bizi ziranean batzuk eta lan onen ondoren lez jatordurik be ez zan egiten, baiña lana bera egiten zan bitartean bai agurtza otoitz egin eta ipuiñak kontau. Au zan antxiñako euskaldunen ipuiñak gazteekana eltzeko sasoirik egokiena: Arto-zuritzearen lana. Or ikasiak doguz dakiguzan ipuiñak zarrenak.

Gero artaburuak, zuritu ziranean kapatxea kenduta gero, garandu egin bear izaten ziran, artagarauak zaran batera eta burutxak beste batera botaten zirala. Burutxak beko sua indartzeko izaten ziran eta artagarauak abereen eta personen janari.

Artoa anegako zorrotara sartzen zan eta errota eroan. Andik, ordain lez errota-saria emon ondoren, urun biurtuta etxera ekarten zan eta kaxan sartu ondo zapalduta. Andik artzen zan abereai emoteko naiz personentzat. Baiña etxekoak jateko zan artoa errotara eroan aurretik igartu egin bear izaten zan, orretarako labasuak eginda. Geroago

EUSKAL-ASTEIA

aitatuko dogu au. Gero uruna galbaetik igaro eta garbitu egiten zan. Urrengo orea egin, taloak jo ta talaburdiñean erre eta maira. Urnagaz batera gozagarria esaten jakon ogi edo gari-urunaren pizka bat nastatzen jakon. Orea ondo igurdi bear zan, talo meiak egiteko.

Arto-zuritzearen jaiak edo egunak ez dauko aurrean esandako lanen aunditasunik baiña bai sendiko bizitzan esangura aundia, batez be ipuiñak zabaltzeko era dalako.

* * *

LABA-SUAK

Len esan dogu artoa igartu egin bear izaten zala, batez be personetzat janari izan bear eban artoa. Orretarako izan dira Euskalerrian labak.

Labea bearrezkoa zan, artoa bearrezkoa zan neurrian, eta etxearen aurrean izaten zan beste etxe txiki bat barruan labea eukana. Iparraldeko baserrietan teillape baten ikusi dodaz etxea ta labea, baiña emen gure artean ez, bear ba'da suari bildurra izan jakolako.

Labeak ur bitarako teillatua eukan, eta dauko, oraindiño ainbat lekutan dagoz labak-eta, teillatuean labaurrea, etxeko lan-tramankuluak zaintzeko. Labearen agoa arrizko lauki bat izaten da eta barruak zoi-errez eginda sabaia eta arriz eginda beia. Keak urten dagian atzeko orman zulo txiki bat izaten dau. Agoaren albo bietan ormaziñak esaten jaken lekuak onak izaten ziran oilloen abi izateko.

Laba orreitan egiten ziran, eta oraindilño be egiten dira etxe gitxi batzutan, labasuak. Basoko iñarrak eta zugatzen abarrak eta otea burdi irrirtzilarietan ekarten ziran eta labako sua biztu ondoren orreik sartzen ziran sugarri lez.

Goizean goizetik, eguna argitu baiño lenago, biztuten zan labea eta ondo berotu arte irauten eban suak. Etxe bakoitzean ogei bat labasu egiten ziran urtean, egunerik egunera ez ba'da be al dan neurrian, artoa zelan igartu alan, jarraian.

Labea ondo berotuta egoanean eta artoa sartu baiño lenago, etxerako bear ziran edo nai ziran

beste janari batzuk erreten ziran: piper gorriak, patata txikiak (oneik jateko gozo-gozoak izaten ziran) eta batez arto labakoak. Arto labakoa taloa baiño lodiagoa zan eta egunetan irauten eban ezne berotara botata jateko.

Gero arto ezea sartzen zan labara eta an geratzen zan egun batzutan, arto iger biurtu arte. Gero arto igertua garandu eta zorrotara sartzen zan.

Labasua egitean erabilten ziran lanabes batzuk gogoratu nai dodaz emen: Otea ta abarrak labara sartzeko urkulua, eta sardea; laban sortzen zan autsa garbitzeko ipizkia, au uretan buztiten zan eta gero labea uraz garbitu; artoa laban bardintzeko belakia, kirten luze bat eta azkenean olezko zabal-une bat eukala.

Labasuen eguna ez zan auzoen jaia, baiña sua eta kea ikusita auzoak jakiten eben labasuen barria eta zenbat egiten ziran kontau be bai. Baiña labasuegunak etxean usain berezi bat eukan eta laban erreten ziran janari bereziak ondo etorten ziran.

* * *

BEDAR-EBAGITEA

Bedar-ebagitea San Juan inguruan egiteko ko lana zan eta lan au egiteko auzoko langilleren batzuk bear izaten ziran, bedarra ebagiteko indarra ta trebetasuna bear diralako. Lan au ez eben iñoz egiten andrak eta ez umeak be. Gizonen eta mutil gazteen lana zan.

Lan onek beti izan dau eleizeagaz burruka bat, geienetan igandeetan egin izan zalako eta abadeak ez eben nai izaten igandeetan lan ori egitea.

Bedarra ebagitearen lana, Euskalerrian lanik geienak lez, goizean goizetik asten zan, lenengo etxean kopatxu batzuk artu eta gero landatik urtean zaatoa zala, noizbeinka ardau tragutxu bat egiteko.

Bedarra ebagi ondoren zabaldu egin bear izaten zan eta alde batetik legortzen zanean itzulitara jarri beste aldetik lergortu daiten, gero bedarra batu eta metak egin edo etxera eroan. Batzeko eskuberea erabilten zan eta eroateko sardea. Burdi-gaiñean ondo pillatu bear zan, burkadeak alderik izan ez dagian eta gero zurrunaren urkullua ezpa-

tan sartu eta atzean sokeagaz burdiaren azpira lotu.

Burkadea etxeratzen zanean, laztategiaren aurrean ipinten zan, idiak atzerantza nekez egin ondoren, eta andik batek laztategira jaurti sardeagaz eta besteak an pillatu, iñoz gatza botaten zan bitartean bedarra usteldu ez daiten, batezbe ondo legortuta ez egoanean.

Bedar-lana ez zan lan ona, gari joatearen antzera egunik beroenetan egiten zalako eta noizean bein olako egun beroetan arratsalderantza odei-otsak, trumoiak, entzuten ziran eta zelako estualdiak euria egiten asi baiño lenago bedarra batu eta etxeratzeko. Ori ezin zala ikusten zanean, beintzat pillatu, metak egin, euri-urak kalterik egin ez dazion.

Egualdia ona izan ezkerro, landa-bazterrean gaurko pik-nik'en antzera egiten zan gosaria edo askaria: "Zamaua bean zabaldu, etxeko andreak otzaran janariak ekarten ebezan: Arrautzak, lukainkak, ogia ta ardaoa... Benetan gosari ta askari atsegingarriak izaten ziran eta olakoak egiten ziran artajorrara goizean gozetik joan ezkerro be.

Orduan gaur baiño be ugariagoak ziran zubeak eta zirunak eta batez be umeai bildur aundia emoten euskuen olako piztiak.

Bedar-batzearen lan au sarritan igandeetan egin bear izaten zan, euri-arriskua egoalako, eta lan ez eben txartzat artzen abadeak be.

* * *

ERRENTA-ORDAINTZEA

Errentak ordaintzeko etxera etorten ziran errentea zor ebenak, baiña au era askotara egiten zan.

Batzutan baserritarra bera zan errentea ordaindu bear ebana, eta jabea Bilbao'n bizi izaten zan. Errentea ordaintzeko eguna Santo Tomas, abenduaren 21'ean.

Egun orretan baserritarrak otzara bete opari eroaten eban: Oillo edo oillasko pare, indabea, eta abar. Etxearen errentea ordaintzeko dirua be bai. Egin dagigun urteko berreun bat pezeta izan-go zala eta goizean gozetik baserrian autobusa artu eta Bilbao'ra joaten ziran. Enparantza barrian

Tomas Deunaren azoka ikusi eta gero ugazabaren etxera. Abegi onez artzen ebezan ugazabak eta opariakaitik eskerrak emon ondoren, bazkaltzeko dei egiten eutsen. Bazkari eder bat jan ondoren errenta laburra ordaindu eta barrero etxera.

Ordaindu-bearra auzoan bertan edo erri-barruan izaten zanean ez zan olako jatordurik egiten eta artu-emonak be ain onak ez ziran izaten.

Antzeko eguna izaten zan maillego lez emondako diruaren edo etxearen goizean ipiñita egoan diruaren obariak edo interesak ordaintzera etorten ziran. Urrengo erritik oiñez etorten ziran nik ezagutu neban eta "Txarri-Muzturra" ez-izena eukan bere laguna.

Obariak ordaindu ondoren baserriko bazkari ederra jaten eben eta gero soloak ikustera ibilladi bat egin.

Bazkaltzeko kanpoptarrak etxean izaten ziran, egun aundia izaten zan baserrian.

* * *

TXARRI-ILTEA

Gure aurretikoen aldian arategiak urriak ziran eta baserrietatik urten be gitxiago urtetan. Orregaitik, etxerako eta urte guztian janari izan ziran txarria eta zezena edo zezina ilten ziran etxeetan. Gaur etxeko ilte oneik larruone baten dagoz, alde batetik arategitik ekarritako okela barria naiago izaten dalako eta beste aldetik abereen gaisoak dirala-ta, albaiterak, legeak kontuan dabezela, etxeko ilketak egiteko eragozpen geiago jarten dabelako.

Udabarri-inguruan erosten zan txarria, baiña ez txarrikumea, naikoa azia baiño, sei bat illebetan janaria ugari emon eta loditu ondoren, bere sasoiaren ilteko gertu egon daiten. Batzuk orregaitiño, kumea erosten eben urte osoan janaritzeko.

Txarriak erosteko azokarik ospetsuena Arrigorriaga'koa izaten zan eta ara joaten ziran etxeko jaunik arduratsuenak erosketa egiteko. Beste batzuk urrinago joaten ziran Intziñe'ra (La Encina) edo Artzeniega deritxon Araba'ko errira.

Txarria ilteko iretargia edo urak zelana egoten

EUSKAL-ASTEIA

ziran artu bear izaten zan kontuan, edozelan be ez zan izaten orretarako eguna San Martin, naizta erderazko esaldi batek egun ori izendatu. Urrago izaten zan Kontzeziño edo Sorkunde jaia.

Egun orretarako eta txarri-iltea egokiro egiteko iltzailleari deitzen jakon. Geroago etxeko jaunak ikasi eben lan ori egiten.

Txarri-iltzaillea ekarten zanean, sari lez txarri-burua emoten jakon eta bazkarian izaten zan maikide.

Egun orretan goizean goizetik txarri-iltzaillea etorten zanean, beragaz edari-ontzitxu batzuk artzen ziran, gero txarria txarri-tokitik atera eta atean bertan iltzailleak gantxoa okozpetik sartzen eutsan eta orrelan eroaten zan irrintzika, ate-aurrean edo portalean orretarako gertatuta egoan leku berezira, mai-antzeko batera eta an mai orren gaiñean etxunda ipiñi bear izaten zan eta sendo eutsi. Gero iltzailleak aiztoa sartzen eutsan besoen arte ingurutik odola aterateko eta etxeko andreak artzen eban odol ori ontzi zabal baten, gero lukainkak egiteko.

Txarria odol-utsitu zanean, ate-aurrean irakaz sua egin eta su orretan erreten zan txarria, bere ulea kentzeko. Gero aizto aundiagaz eta uragaz garbi-garbi egiten zan, maiaren gaiñean ipiñi eta barruzkiak atera. Azkenez joko batzuk egiten ziran txarriak zenbat artoa euki leikezan eta gero bere astuntasuna neurtzen zan. Goiko sabaitik ezkegita geratzen zan ordu batzutan. Orretarako beti egoan gertu sabaian zulo bat.

Ordu onetan etxeko andreak bazkaria gertatuta eukan eta guztiak, etxekoak eta auzotik etorriak txarri-iltzailleagaz batera maian jarten ziran, etxeko bazkaria egiteko.

Bazakari orretako janariak geianak txarrikiak ziran, batez be barruzkiak eta onein artetik gibela ta biotza ta olakoak. Gure etxeko andrak ba-ekien janari oneik egokiro gertatzen eta baserrian egiten zan txarri jana jatordu derra izaten zan.

Arrezkero, edozein lekutan eta edozein egunetan egiten dira Txarri-Bodak esaten dautsen jatorduak, baiña oneik txarria il eta urrengo egunetan izaten dira, buzkantzak eta olakoak be jan al izate-

ko. Eta olako jatorduetan gitxien jaten dana bear ba'da txarrikiak izaten da.

Bazkaria egin ondoren, txarri-iltzailleak zatitzea egiten eban eta zatiak gatz-barruan gazunaskan zaintzen ziran urte guztirako. Bitartean etxeko andrea odolosteak edo buzkantzak egiten alegindu da, porruak eta piperrak eskuetan dirala. Emen ez da sartzen izan arrozik, baiña oitura ori Araba'tik etorri jaku eta ez da txarra.

Urrengo egunetan lukainkak egiten dauz etxeko andreak eta gero eskatzean eskegiten dira, etxeko berotasunak eta keak bear dan lez legortu dagian. Illebeta-edo igaro ondoren gertu egongo dira jateko eta urte guztirako izango dira egokiak.

Ez dakit iñoz entzun izan dozuen gure baserrietan, or eguerdi-inguruan edo lentxuago, kanpai antzeko zarata bat. Etxeko andrea da eta almezian urdaia jotzen dabil, lapikora sartzeko. Txarrikiak era askotara da onuragarri baserrian.

* * *

ZEZIN-ILTEA

Urterako janariak etxean eukitearen bear-izian onek zeziñaren jaia ekarten eban. Zeziña edo zezena ez zan besterik txal bat baiño, eta txal baten aragia etxe baterako larregi zalako, auzoak edo adiskideak batzen ziran etxe baten zeziña ilte au egiteko eta aragia euren artean banatzeko. Oraindiño gaur be egiten da olako jaia, baiña apur bat aldatuta. Esaterako Arrieta'ko auzotia dan Jainko'n, Andra Maria'ren jaien aurretuan auzokideak batzen dira txala il eta jaietarako okelea euren artean banatzeko eta guren diran zatiak nor-geiagora edo errematean saltzeko.

Antzekoa zan zeziñaren eguna. San Martin egunean edo or inguruan ospatzen zan: Zezen orretan eroskide izateko alkartuak goizean goizetik batzen ziran etxe baten, zezena edo txala ilten eben puntzetagaz adar bitartean jota, eta arakiñak zezen ori maneatu ondoren, bazkaria egiten zan, txarri janaren antzera, eta gero bakoitxak bere zatia artuta eta etxera. Etxean zezin-zatiak gatza emon, salmoatan sartuta, eta legortzeko eskatzeko sabai-

tik eskegiten ziran. An egoten ziran ille batzutan, ondo legortu arte. Euren sasoiak eltzen jakenean andik kendu eta kaxa edo kutxa batera sartzen ziran eta antxe euki urte guztian galdu ez daitezkan galtzu-artean sartuta.

* * *

ERRIKO JAIK

Beste giro bateko jaiak ziran oneik. Ez eukene beste elbururik sendiak alkartzearena baiño. Oitura onek oraindiño jarraitzen dau leku askotan, baiña lengo bizitzasuna galduta.

Erriko zaindariaren jaia ospatzen zanean, goizean sukaldarientzat meza berezia izaten zan panokian eta gizonak aske egon zeitekezan andrakaz batera parroko meza nagusira joaten ziran.

Meza-ostean parroki edo auzoko baseleizaren inguruan jolasak izaten ziran, jolasak edo kirolak, eta gizonak etxeratu orduko oso berandu izaten zan, orrelan kirol-zaleak ez ziralako-edo, sasoiak etxera etorten ziranak gogaituta itxaron bear izaten eben.

Jaietarako, sukaldari ona izaten zan etxeko andreak, bazkari egokia gertatzen eban: Sukua, garbantzuak azakaz nastatzeko eran, sukalkia edo gisaua, geienetan patatatsu, okelea urri egoalako, gero sagar erreak edo albimerea (konpota) eta amaitzeko akeita, eta edaria. Egun orretan ardaia ta ogia be izaten ziran eta ez zan jaten artorik.

Orain be egiten dira erriko edo auzoko jaietan olako jatorduak, baiña gaurko sukaldariak lenagoak baiño aukera obeak daukez.

* * *

GABONAK ETA GABON ZARRAK

Zelako ametsak egiten genduzan gure umedenporan gabonetarako! Orduan ez egoan gaurko beste jostailu, emaitz eta olako, baiña gauza gitxi-giñan.

Egun orretarako, ezelan al ba'zan, etxeko guztiak batzen ziran mai-inguruan, baiña etxeko-

etxekoak baiño ez, etxe guztietan ospatzen zan jaia zalako. Edo ikasten egoan mutilla edo mirabea zan neskea, edo osaben etxean bizi zana, egun orretarako maira etorten ziran. Ondo iñoan arako abesti arek: Ator, ator, mutil etxera...

Apari aretako janariak beste egun aundi guztietakoak ziran: Garbatzua azakaz, gisaua edo sukalkia ta abar, baiña gauza batzuk bereziak be jaten ziran gabon-gabeen: Intxaur-saltzea esaterako, eta oraituago turroia ta marrazkilloak edo karakolak.

Apaldu ondoren etxerik geienetan kartetan egiten zan, urte guztian sekula egiten ez eben etxe askotan be bai. Egunari berea emon bear jakon!

Aspaldion gabon-gabeen gazteak etxetik gitxia-ko urtetan dabe, baiña orduan bai urtetan zan.

Gabon-gabaren antzekoa izaten zan gabonzar eta urrengo egunak be antzekoak, Jaiotza-eguna ta urtebarri eguna. Bietan barausteko txokolata artzen zan eta bazkaria oi zan lako baiña obea.

Olentzeroren entzuterik ez egoan gure artean baiña bai natibitate eta urtebarri batzen etxerik etxe joatekoa.

Gabon-giroa benetakoa zan orduan, ez gaur lez eroste ta jan-edan utserakoa, etxeko ta eleizako jaia zan, baiña orduan gazteak urtetan eben gabaz eta baragarrikeri batzuk egiten ebezan: Kortetara sartu eta orroa egin ugazaba beien arduraz jagi daiten, edo itaillak zugatz gaiñetara jaso ta abar.

* * *

MONJORRAK

Gure baserrietan, urteak joan eta urteak etorri, eregintza edo etxegintza-lan barriak egin bear izan dira, eta aspaldion baserria bera barriztatzeko be lan asko eta aundiak. Olako estalpe bat edo eregintza-lanen bat egiten zanean, teillatua ipiñikeran edo azkenean beti egiten zan jatordu bat. Jatordu oneri monjorra esaten jakon leku askotan baiña gure artean beste izen bat eukan: ALBOKIA.

Oitura ori ez da galdu eta gaur be ikusten

EUSKAL-ASTEAK

doguz etxe barrien gaiñeetan zugatz-abar orritsuak jai ori ospatu bear dala adierazteko edo eskatzeko. Ugazabak batzutan emoten dau.

* * *

TOTOA

Totoa esangura aundiko jai bat izan da gure errietan: Ordain-barik esku-lan bat egin bear zanean, esaterako solo batera satsa eroan, edo erri naiz auzo-lan bat egin, edo auzotegian zan beartsu bateri lan bat egiñaz lagundu, edo eleizarako lan bat egin, lana bera doan egiten zan baiña azkenean totoa esaten jakon bazkari edo epari bat egin bear zan.

Totoak gitxienez era bitakoak izaten ziran. Esker ona agertzeko almen aundirik ez egoanean, naikoa izaten zan makallau errea eta orio gordiña, ardaud edateko atxaki lez, eta geien egiten zana, alkarragaz berba egin astitsu.

Baiña geienetan totoa benetako aparria izaten zan, ez etxean egiteko, erriko jatetxe edo edate-xean baiño. Etxeetan be iñoz egiten ziran totoak.

* * *

ILLETAK

Orain ogei ta amar bat urte dirala, illetak goizetan egiten ziran, aldi aretan mezak arratsaldean egiteko baimenik ez egoalako eta antxiñatiko oiturrea onelan zalako. Eta ildakoaren senide asko erbesetik etorriak ziran ezkerro, arei bazkaria emon bear izaten jaken.

Illetak eurak be askotarikoak ziran, eta illeta-mota batzutan ordu bi baiño geiago egiten ziran.

Illeta batzutan azkenean abadeak berak esaten eban eleizkizunean izandako guztiai ildakoaren etxe-koak bazkaltzeko deia egiten eutsela.

Illetaren ostean bazkaria egiten zan ba, erri beretako edatetxe baten eta antxe egiten eban sakristauak maiaren bedeinkapena eta mezak eski-

ñi ebezan guztien zerrendearen irakurketa, bitartean "Pater Noster"ak esanez.

Bazkaria geienetan ugaria izaten zan eta abadeentzat leku berezi baten, janariak be sarritan bereziak zirala.

Dirutsuak edo irabazbide zabalekoak ez ziran sendientzat ondamendia edo antzeko zerbait izaten zan illetako bazkari ori.

Ez da zertan ezkutau, illetetako bazkari orrietan izaten zirala geiegi edaten ebenak be.

Dana dala, dolumiñezko giro aretan alkartasunerako bide bat zan illetako bazkari ori.

* * *

BESTE ELEIZ-JAI BATZUK

Gure aldi onetan eleizako ospakizunak jatorduakaz alkartzen dira, baiña oitura au oraintsukoa dala esan daikegu.

Bateoak, esaterako, abadea, aitabitxi-amabitxiak eta ama-laguna aurrean zirala egiten ziran, beste iñor be ez, mezak lagun ziran umeak lekuko lez izan ezik. Etxean ez zan ezelako jairik egiten eta umearen gurasoak be etxean geratzen ziran, ama osatzen eta aita soloko lanak egiten. Lenengo Jauna-artzeetan jatorduak egitea apurka sartzen joan dan oiturea izan da. Guda-ostean beintzat ez egoan olako jairik egiteko aukerarik.

Ezkontzak oraintsura-arte goizeko orduetan eta goizetik, eguna argitu baiño be lenago egiten ziran eta ez egoan jatordu berezirik. Ibillaldia egitera bai urtetan eben batzuk. Geienak Donostira joaten ziran.

Gure aldi onetan, ostera, garrantzi aundia emoten jake, geiegi bear ba'da, olako abagunetan egiten diran jatorduai. Asko aldatu gara.

* * *

AMAITZERA

Orra or, labur-labur agertuta, euskaldunak urte asko ez dirala izan eben bizikerea. Ba-dira or joka-

bide batzuk gaurkoak baiño garbiagoak eta gizabi-
dekoak diranak, bai beste batzuk be, ostera, oke-
rreko bidetik joiazanak, baiña gure aurretikoak
orrelantxe bizi ziran, eta naikoa zoriontsu. Gaur
beste era batera bizi gara, baiña ez dakit ain zorion-
tsu bizi garan. Zoriotasuna ez datorrela esan lei
asko eukitetik, gitxi bear izatetik baiño.

Eskerrak guztioi ain entzule eroanpetsuak izan
zareelako. Orain zuek emon zeinkeezan barrien
eta egin zeinkeezan g alderen zain geratzen gara.
Eskerrik asko.

OLAZAR MARTIN

Ostiral Santu

Goiria

Illunpe lodiz- dakust mundua,
ixil-ixilik Kalbariva.
Jainko-Semea gurutz-gañean
untzez josirik eta il-zorian.

Gizadiaren gaiztakeriak
gurutzatu dau Jainko-Semia.
Ikaraz dago mendi guztia,
lotsaz beterik goian euzkia,
zintzilik antxe bizi-iturria,
ta biraoka bean jentia.

Gurutz-alboan Ama samiña,
itxaso añako da bere miña.

Lapur-artean Jaun ta Jabea,
Egille dana, oben-gabea,
Gurutz-gañean ilda dagola
bera jausten da bere odola.

Iraindu zaitut, erruki zaitte,
nire obenaz oroi ez zaitte.

Begira niri, gurutz ortatik,
Zuganutz eruan zeru-bidetik;
Biotz orretan sar ni maitero
zure semea nazan ezkerro.

Calombia - 1934

| GURE BASETXEAK |

Len be, aldizkari onetan, basetxeari buruz birritan erabilitako gaia dogu. Izan be, basetxeari dagokion arazo ta artu-emonak, kutun eta txeratsuak beti izaten jakuz. Euskaldunok, zuzenka edo zearka, basetxeetatik gatzoz ta ementxe bertan, ondo tenkortuta, dagoz euskal sustraiak. Gure abizenak be ortik artuta doguz. Beraz, ez da ba arritzekoa gure joera, biotz-bigun eta maitekorra, basetxeari lotuta egotea.

Juan dan urtean zear (1989) eta batez bere abenduan, Gabon-aldi inguruan, gure mendi-basoetan erreketeta edo sute ikaragarriak izan ziran. Ustegabeko edo asmo gaiztokoak izango ete ziran-edo, susmo ta zurrumurru ugari erabili ziran erritar artean. Zein batera zein bestera izan gure mendi-basoko aldapa ta tontorretan garrak, ke-moltso itzaleko artean, izanak eta ez izanak kizkaltzen eta ondatzen ari ziran. Lur-alde aundi batzuk, guztiz ia 29.000 ektarea, dira suntsituta geratu ziranak. Millaka zugatz mota guztietarikoak batez bere piñuak, ikatz biurta, mamuak izango ba'lira ikusi geinkez bazter guztietan.

Baiña idaz-lan onetan ikuspegi berezi bat gaitzat artu dogun-ezkero, beste gogorapenak alde batera itzi ta moldatu gakiozan guri dagokigunari: Gure basetxeak.

Erreketeta edo sute oneitan 38 basetxe erre ziran eta euretariako 30 utsik egozan, au da, % 79. Beste era batera esanda, zenbaki onein arabera, eun basetxe artean 21 bakarrik biztanle edo baserritarakin eta beste emparaukoak 79 utsirik egongo ziran. Egoera negargarri ta zoritzarrezkoa!

Basetxe itxitakoari buruz atara dogun ezaugarria, zelakoa ete-da?: siñist-eziñezkoa?, zalantzazkoa?, siñisgarria? Nik uste dot naiko siñisgarria izan bearko litzakela. Arazo oneri begira suteak ez dirala lurralde baten bakarrik izan, Bizkai'ko toki ezbaridiñetan baiño, gogoan artu dagigun. Olan, zertzeladak an-emenka artu-ezkero, ataratako ezaugarria onargarriagoa izango da, toki baten bestean baiño geiago edo gitxiago egon leitekezan basetxeak einkatu egiten diralako. Dana dala oraintsu Bizkai'an gertatutako baso suteak dirala-ta atara dogun ezaugarria, len esan dogu bezela, ikaragarria da: eun basetxeetatik irurogetaemeretzi utsirik, bertanbera lagata, dagozala esan geinke.

Izadirako zaletasunak basora ta mendietara bultzaten gaitu. Beraz sarriro basetxe artean ibiliak gara. Askotan, abadagune eskuratzen zanean, baserritarakin jardunaldi maitegarri ta atsegiñak, izaten genduzan; jakiña, euskaltzaleak garan ezkerro, gure euskera begikoa erabiliñaz. Lenengo itauna (zioren bat egon bear da itz egiten asteko) basetxeen izenari buruz izaten zan. Baserritarak beren basetxeen izenak pozik esaten euskuezan eta batzuetan baita be, arro-arro jarrita, zeatz eta meatz adierazi mota guztitariko zertzeladak emonaz.

Izan be gure baso ta mendi zear egindako ibilketan, basetxe utsik asko aurkitu izan doguz bertanbera lagata. Bazter guztietan ikusten dira basetxeak beiñolako ospe ta edertasuna sasi artean erakutsi gurarik naizta teillatua, dana ondatuta, orma zar barruan jausita egon. Makiña bat bider geratu gara isilik eta oldozkor, biotz-minduta, onelako ondamentia ikustean. Ba-genkian lagatako basetxeak asko zirala; baiña ainbeste? Len aitatu dogun ezaugarria (euneko irurogeta emeretzi) egiazkoa ete-da? Ez dakigu, baiña zoritzarrez gure basetxeen egoera, neketsu ta larria, nabarmena da.

* * *

Eusko Jaurlaritzak Bizkai'ko Aldundiaren (Nekazaritza Saila) bitartez, baserritarren aldeko neurri batzuk artu dauz dirulaguntzak araupetuz. Egiazko baserritarra izan bear da dirulaguntzarako eskubidea eukiteko: nekazaritza lotuta egotea ta basetxea etxebizitzat erabili bear izatea. Onezaz gaiñera beste baldintzak be bete bear dauz. Laburki esanda garrantzikoena oneik dira: nekazaritza lortutako onura edo irabazia % 50'ekoa edo au baño aundiagoa izan bear da ta basetxetik kanpo egiten dauan laneko orduak guztizko laneko orduen erdia baño laburragoa izango da.

Gure agintariak baserritarrenganako daben gogo-ona ta ardurea nabari ta bidezkoa da, baiña gaurko ekonomiegoeran nekazariari lugintza lotzeko laguntza guztiak nekez izango dira naikoak.

Basetxeen gaia samurkiro ta miñeriki erabili izan dogu geienetan. Amaika bider iñon diran goralpenak poz-atsegiñez edestu izan doguz: basetxeak eusko abenda zarra ta ekanduen oiñarria izan dira ta baita be gure izkuntza maite dan euskeraren gorde-lekua (...). Dana egia da ta goralpen oneik ondo merezitakoak...

* * *

Zoritzarrez garai kutun eta txeratsu ori joan jaku betiko. Gizadia aurrera doa atzera begiratu barik eta luzeren-luze basetxeen egoera paketsu ta ongaria geroago ta kaskarrago agertzen da. Euren urritasun kezkarria uka-eziñezkoa da ta onezaz gaiñera arerio txar bi sartu jakez barruan: irrat-izkin eta irrat-ikuskin. Berez gauza onak eta onuratsuak dira baiña esan geinke baserrian ostatari bi, baimen barik, sartu ta egun osoan erderaz ari dirala geienetan, euskeldun nortasunaren kalterako: euskeraren gorde-elku berezi ta jatorrizkoaren ondamentia!

Aurrerantzean euskereak, bizirik iraun al izateko, beste gorde-leku gaur egunean egokiagoak billatu bear doguz: irakazkuntza, urietako kaleetan... euskotarren biotzean eta batez be euren minetan euskerea erabiliñaz.

IDIGORAS'tar JOSEBA ANDER

Edurnetxu

Goiria

Neguko goiz bat da ta
edurra mara-mara
goi-mendian;
baso-mendi muño ta
solo-baratzak ara
edur-tartian.

Ez da agiri artzairik
alai joten txistua
an gallurrian,
txabola utsik itxirik
artalde dau sartu
etxe zarrian,
Urduriz ta ixilik doaz
andre-gizonak,
jantzi lodiz bilduta
sukalde berotara

amon-aitonak.
Solo-barrendik-zear
ume bat agiri da
beruntz errira,
negar ta negar doa
Edurnetxu txikia
erri-illobira.

Atzo goizean ama an
itxi eben sakonki
lurperatua.
Ituna barrenean
doa bertara ixilik
neskatotxua.

Antxe dardarka otzez
aurkitu dot gaxoa

ate-ondoan
belauniko negarrez
amatxogaz izketa
ixil-goxoan.

Legunki laztandurik
bialdu dot umia
bere etxera,
edurrak gogortuta
il ez zedin gaxoa
aman antzera.

Bilbo - 1930

Umezurtza

Goiria

Gazte nintzala galdu neban nik
neure amatxu maitea,
ordutik ona ez dakit zer dan
zorionsua izatea.
Zorionsua izatea.

Ordutik ona ez dot aurkitzen
munduan iñon pozarik,
beti goibel naz ta nekepean
ez dot iñondik alairik.
Ez dot iñondik alairik.

Neure amaren begi biguñak
betiko jatatz ez tali,
bere irripar-begirakunak
bein ta betiko itzali.
Bein ta betiko itzali.

Bera zan nire poz-ezti-gaia,
nire begien argia,
neke-alditan pozkille gozo,
maitasunezko kabia.
Maitasunezko kabia.

Bera zan nire egizko ama,
gozo, samur ta ezti,
ama kutuna, ama laztana,
itun-alditan alaia.

Bera zalarik zoruntsu nintzan
oro jatan poztasuna,
amatxu ilda itun bizi naz
joan da igesi zoruna
joan da igesi zoruna.

Neure amatxuk itxi nindun-da
umezurtz gintzan geratu.

ordutik ona ez dot nik iñoz
zoriona ezagutu.
Zoriona ezagutu.

Gogoratzen dot, ez dot aztuta
bere abots leun-guria,
seaska-alboan goxo-goxoro
abesten zun eresia.

"Ez egin negar, ene laztana,
maite... biotza... kutuna...
lolo egizu oge beroan
neure begien zoruna.
Neure begien zoruna."

Orain barriz *Ai* ez dot aditzen
bere abesti gozorik,
itun bizi naz, biotza samiñez.
Gorputz ta gogoz gexorik.
Gorputz ta gogoz gexorik.

Udabarrian muñotan dira
izaten lora-pitxiak,
bañia niretzat ez dira sortu
ezer ez dira guztiak.
Ezer ez dira guztiak.

Udabarrian ibar-menditan
abesten dabe txoriak,
nire biotzak ez dau alairik,
ezin poztu eresiak.
Ezin poztu eresiak.

Udabarian zelaian dira
anitz mitxeleta fiñak.

euren kantuan ezin ni poztu,
ez dira nitzat egiñak.
Ez dira nitzat egiñak.

Azken irtetan amatxu barik
bizi naz itun ta miñez,
bizitz onetan ez dot zorunik,
gau ta egunez samiñez.
Gau ta egunez samiñez.

Eriotz baltzak eroan eustan
neure amatxu kutuna,
eriotz berak biurtuko daust,
niri betiko zoruna.
Niri betiko zoruna.

Goiko zeruan ikusiko dot
barriro ama kutuna,
neure ondoan eukiko dot an,
bera izango dot laguna.
Bera izango dot laguna.

Erruki, Jauna, erruki nitaz,
nire pozkille izan Zu,
lur onetatik lenbailen, Jauna.
Amaganatu nagizu.
Amaganatu nagizu.

.....
Gazte nintzala galdu neban nik
neure amatxo kutuna,
ordutik ona ez dakit zer dan
zorionsua izatea.
Zorionsua izatea.

Gazteiz - 1927

"AUTODETERMINAZIOA"

(Erregearen Erantzuna)

"Autodeterminazioa" edo "ber-erakuntza", gizakume batek, edo Erri batek, bere burua berak nai dauan bezala eratu aal izateko eskubidea dogu.

Ber-erakuntza orrek ez dau esan nai Erri batek onelakoa, orrelakoa, edo alakoa izan bear dauanik. Soilki, gizakume batek edo Erri batek, onelakoa, orrelakoa edo alakoa izateko eskubidea badauala esan nai dau.

Eztare ez dau esan nai Erriek, ots, Aberriek, onelakoak, orrelakoak edo alakoak izatera bearturik dagozanik. Auxe besterik ez dau esan nai: onelakoak, orrelakoak edo alakoak izateko eskubide osoa dabela.

Orregaitik, Euzkadi'n abertzaleek badabe Euzkadi'rentzat askatasun osoa eskatzeko eskubidea, eta baita españizaleek Euzkadi Espāñi'rekin alkaturik gorde nai izatekoa ere. Bai aiek ordea eta bai auek, beren asmoe-tara iristeko indarkeririk erabilli gabe.

Ori ez dabe ulertu españizaleek. Ez da arritzekoa. Espāñi'k burua galtzen bait dau Euzkadi aipatzen yakon bakoitzean.

Euzkadi'n ber-erakuntza oiukatu danean Euzkadi'ren aurka jeiki da Espāñi osoa: Errege Borboia, Felipe Gonzalez'tarra, "Izkierda Unida", Blas Piñar, Gudaroztea, Fraga, Caro Baroja... eta nor ez?

* * *

Bai. Eliza! Oraingo ontan zorionez ez da Eliza, oituzkoa izan daun lez, Espāñi'ren alde eta Euzkadi'ren aurka, auzian sartu.

Errege Borboiak aztu dau —edo bearbada ez dau sekulan jakin—, Borboiak lendabizi errege izan ziran tokia, Euskalerrria izan zala, eta beren erreñu artako jendeak, danak —amarreko batzuk kenduz gero dan-danak—, euskera beste izkuntzarik ezagutzen ez eben jendeak zirala. Benaparroa'n izan bait ziran beste iñon baiño len Borboiak errege.

Espāñi'ren batasuna aizatu dau Errege Borboiak Euzkadi'ren askatasunaren aurka. Guri, Franko'ren "Espāña una" ura dakarkigu gora arrazoiketa orrek.

* * *

Gugaitik, bat izan daiteke Espāñi, gura ba'dau; guk, Euzkadi Espāñi ez dala, esaten bait dogu.

Gaiñera, nongo legeak agintzen dau Espāñi, ainbeste endaz eta kulturaz osotutako Espāñi ori, bat izan bear dauanik?

Ez beintzat "lex naturalis" edo izadi-legeak; izadiari dagokionez, Espāñi sortzen asi baiño MILLAKA URTEZ leenago... iEuskalerrria bai bait zan!

Ezta, ez noski, Jainkoaren legeak ere. Onaku au, bere elizbarrutian espetxeraturik egozen apaiz euskaldun onuragarri batzuk babesteko, Segura Kardenalak Sebilla'ko apaiz Frankozale batzuei esana da:

"Idazti Doneko zein aapaldietan, Kontzilio Ekumenikuen zein erabakietan, Kanon-Legeko zein arauetan, Aitasantuen Entziklika-Gutunetako zein ataletan ikasi dozue Espāñi'k 50 probintzi izan bear dauzala".

* * *

Gaiñera —egin dagigun bildurrik gabe galdea—, lortu dau Espāñi'k bere batasuna? Batasun guztiak lortu oi diran bezala: indarkeri gaiztoz.

Gizadia, berez, ez doa batasunera; alkartasunera doa. Gizarteko mailla eta arlo guztietan, batasuna lortzeko, naitanaiezkua dau indarkeri gaiztoa batasungilleak.

Euzkadi'ri dagokionez, ondotxo dakigu euskotarrok, joan dan mendean, guri Lagi Zarra ebatsiz nola lortu eban Espāñi'k bere batasun ori. Aurpegi zakarra ikusten yako Espāñi'ri, batez ere joan dan mendeko Espāñi'ri, Euzkadi'tik begiratzen ba'yako.

* * *

Alatagutziz —esan dagigun lotsarik gabe eta bildurrik gabe—, Espāñi'k badau Euzkadi bere altzoan gorde nai izateko eskubidea! Baiñan ortarako, beste era batzuk erabilli bear dauz; ez daikez orain arte erabilli dauzan erak birrerabilli. Euzkadi'k ere badau ba Espāñi'tik bereizita, Laterri iare bat osotzeko eskubidea!

Gaurkoz, ordea, bedi naikoa idatzi dodan au. Bai bait dot gai onekin jarraitzeko asmoa.

LATIEGI'tar BIXENTE

"EGUNA" KOEN OMENALDIAN

Aurtengo orrillaren 12'an, Elorrio uri ikusgarrian, Eusko-Alderdi Jeltzalearen Izkuntza-Sailleak eratuta, Omenaldia egin jaken EGUNA gudaldiko lenengo aldizkarian langille izan ziranai, erritarren artean buru Lendakari jauna zala.

Eguerdiko ordu batetan asi zan omenaldia Sorkunde Garbiaren Eleizan Mezea egiñaz. Gero erriko Plazan izan zan dantza-aldia, Udaletxean Udal-Batzaren Batzar Osoa eta urrengo erri-giroko bazkaria. Bazkal-ostean bertsolariak eta omenduen berbak.

Irakurle batzuren guraria beteteko, EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren orrialde onetan Mezan egindako berbaldia argitaratzen dogu, itzez itz, izlari izan zan OLAZAR'tar Martin abadeak egin eban lez:

— Jaungoikoa maite dogunok, erria maitatu bear dogu:

- Bere kondaira ezagutu.
- Bere lurraldeak ikertu.
- Bere ekonomiaz arduratu.
- Bere etorkizuna gertatu.

— Erriaren ezaugarri eder bat izkuntza dogu. Gaurko gure alkartze onetan ori dogu gai, EGUNA egunkaria eta bertan izan ziran langilleak gogoan doguzala.

— Estualdi aundi baten erria egoan aldian, izkuntzaren alde lan eder bat egin zan: Egunkari bat sortu. Emen daukaguz lan ori egin ebenak, guztiaz ez ba'dira be. Euren alde eskatzen dogu meza onetan, baita euren lankide izan ziran guztien alde be. Batzuk joan jakuzan mundu onetatik.

— Gaur egunkari barria sortzeko gogoan agertu da gure artean.

- Orretarako Berlin-eko ormearen antzeko orma batzuk bota bear dira.
- Egunkaria izan daitela guztien lana.
- Iñor ez daitela geratu alboratuta.
- Izan daitela guztientzat egiña, euskalki guztiak bardintasunaz artuta.

— Erria maite ba'dogu, erriak darabilen izkuntza ikasi eta landu bear dogu, beste eginberrak be beteten dirala.

- Erriak darabilen izkuntza, erriko euskerea, sartu bear dogu egunkarira, baita telebista eta irrati-tara, aldizkari eta liburuetara be.
- Arlo onetan ezin isildu Bizkai'ko euskaldunen kezka: Gure euskerea alboratuta, baztertuta, ikusten dogu eta geure dirua darabilen batzuk, orretan zapaldu egiten gaitue.

— Kendu dagiguzan ormak, egin dagigun bakea, askatasunean lan egiteko.